

AIZKORA

JOKOAREN OINARRIA

Joko hau, neurri zehatzetako enborrak, aizkora bidez, ahalik eta lasterren ebakitzean datza.

EGURRAREN EZAUGARRIAK

1.art.- Ez bada aurrez esaten bestelako zuhaitz-enborrak erabiliko direla, enborrak pago-enborrak izango dira, eta plazara azal eta guzti ekarriko dira, hau posible den kasuetan. Enborrok azalik ez izatea ere ontzat hartuko da, azal hori mendian, enborrak tarrasean eraman izateagatik edo garraio-lanengatik galdu bada. Enborrek begirik, pitzadurarik, akatsik edo okerrik badute, neurri egokia ematerakoan desagertu egin beharko dira begi, pitzadura akats edo okerrok.

2.art.- Enborrak ateratzeko ebaki diren zuhaitzok, berriki ebakiak beharko dute izan. Beraz, enborrak berriak izan beharko dira, berdeak.

3.art.- Gerribueltari dagokionez, beharrezkoa izango da enborrak kanpotik neurtzea, behin zati obalatuak, akatsak edo okerrak zuzendu ondoren, dagokien neurrian gelditu daitezela.

4.art.- Enborren luzera eta gerribuelta, behin enborrak jarri ondoren, honako koadro honen arabera izango dira:

<u>Enborren gerribuelta:</u>		<u>Gutxienezko neurriak:</u>	
<u>Ontzatan:</u>	<u>Metrotan:</u>	<u>Bi ebaketarako:</u>	<u>Ebaketa bakarrerako:</u>
36"	0,835	0,80 m.	0,50 m.
45"	1,043	0,90 m.	0,50 m.
54"	1,252	0,90 m.	0,55 m.
60"	1,391	0,90 m.	0,55 m.
72"	1,669	1,00 m.	0,60 m.
80"	1,855	1,20 m.	0,80 m.
108"	2,504		

5.art.- Enborrak doitzean, beharko luketena baino txikiago geldituko balira, gerribueltan zentimetro 1 edo 2 gutxiago dutela, ontzat emango dira, beti ere enbor-multzo bereko beste batzuek (txikiago gelditu diren enborren kopuru bera), sobera badute hauei falta zaiena.

6.art.- Enborrak, jokaldia hasteko iragarritako ordua baino 24 ordu arinago egongo dira Federazioaren eta kirolarien esku.

Federazioak esango du, bertara azaltzean, enborrak egokiak diren edo atzera bota behar diren. Atzera bota behar izanez gero, interesatuek enbor berriak ekarri beharko dituzte atzera botatakoen orde, gehienez ere 6 orduko epean, une horretatik hasita.

Enborrak bere lekuan jarri eta federazioko agintariak oniritzia eman ondoren, antolatzaileek zaindu beharko dituzte enborrak proba hasi arte.

7.art.- Egurra ohi bezala ekarri beharko da plazara. Esan nahi baita, zuhaitzak ebaki ondoren ezin izango zaie enborrei era artifizialean beroa, hotza, likidoak, eta abar... eman, enborrok gogortzeko edo biguntzeko. Enborrok ipurdian marka ezabaezin bat izango dute.

8.art.- Behin enborrak aurkeztu eta onartu ondoren (hau guztia, lana alde guztientzat ahalik eta parakatuen gelditzeko egiten da), aldeetako bakoitzak bere enborren erdia eskainiko dio beste aldeari. Zein enbor eman, emaileak erabakiko du, eta neurria ematerakoan, enborrotatik zati obalatuak kendu egingo dira, eta gerribuelta proportzioan murriztuko zaio, ahalik eta zilindrikoen eta aurrez hitzartutako neurrietan gera daitezen.

Enborrak gehiegi obalatzea saihesteko, gerribueltan %6ko tolerantzia emango da, bai beherantz, bai gorantz. Ondorioz, enborraren edozein gerribuelta ondoko neurrietan sartu beharko da:

Onarturiko tolerantzia

Enborraren neurria:	Gerribuelta zehatza:	Gutxienezko gerribuelta:	Gehienezko gerribuelta:	Diferentzia:
36"	26,6	25,0	28,2	3,2
45"	33,2	31,2	35,2	4,0
54"	39,8	37,4	42,2	4,8
60"	44,3	41,6	47,0	5,4
72"	53,1	49,9	56,3	6,4
80"	59,0	55,4	62,6	7,2
108"	79,7	74,9	84,5	9,6

ENBORRAK NOLA JARRI

Etzanda daudela

9.art.- Behin enborrei dagokien neurria eman ondoren, 8-12 zentimetroko altuera izango duten langeten gainean jarriko dira, alde bakoitzak aurkezturiko enborrak txandakatuz. Horrela, lehenbiziko enborra A aizkolariarena bada, bigarrena B aizkolariarena izango da, eta abar,...

10.art.- Bi ebaketa egingo diren enborretan hiru langet erabiliko dira, eta langetotako bat enborren erdi-erdian jarriko da. Ebaketa bakarra egiteko prestatutako enborrak, bi langeten gainean jarriko dira.

Bi ebaketa egingo diren enborretan, enbor bakoitzaren erdia ikusteko moduan markatuko da, aizkolari bakoitzak ebaketa bestearen aldera pasatu gabe egin dezan.

Zutik daudela (australiar era)

11.art.- Lehiaketa eta txapelketetan, enborrak ebaketa bakarra emateko eran jarriko dira. Ipurdia-
ren goiko aldea, ebakitzeko orduan, lurretik 0,70 metrotara egon beharko da.

Desafioetan, enborrak bakoitzari bi ebaketa egiteko eran (ebaketa bana aizkolariko) jarri ahal izan-
go dira. Kasu honetan, ipurdiaren goiko aldea lurretik 0,60 metrotara egongo da.

12.art.- Desafioetan, aurkariak bakoitzak ebaketa bakarra egiteko eran jarri nahi badituzte enbo-
rrak, 4. artikuluan, ebaketa bakarreko enborrentzat ezarritako luzeraren bikoitza duten enborrak
ekarri beharko dituzte eta ipurdian marka ezabaezina egin beharko diote. Beraz, 45 ontzetako en-
borrek 1,10 metrotako luzera izango dute; kana erdikoek 1,20 metro; eta abar... Enborrok erditik
ebakiko dira, eta ongi jartzeko beharrezkoa den luzera izango dute.

DESAFIOAK

13.art.- Desafioetan ahaleginak egingo dira aurkariak enbor berak ebaki ditzaten. 4. artikuluan adie-
razitako neurriak izan beharko dituzte gutxienez.

14.art.- Apustueta, bi lerro berdinetan enbor kopuru bera, gerribuelta berdinekoa jarriko da, ahal
den guztietan. Lerro bakoitzean aizkolari bakoitzaren enbor kopuru bera jartzen ahalegindu beharko
dugu, aizkolari bakoitzaren enborrak tartekatuz, 9. artikuluan aipatu bezala.

Enbor guztien ipurdiak alde berdinerara jarriko dira. Bi lerroak paraleloan jartzen badira, ipurdiak
kanpo aldera egongo dira.

15.art.- Jokaldia hasi aurretik, zozketa egingo da. Irabazleak lerroa hautatuko du, eta ipurditik zein
beste aldetik has daiteke.

16.art.- Desafioetan, aizkolariek, dagokien lerroko enborrak nahi bezala ebaki ditzakete. Hala, lerro
horretan, berak nahi duen enborretik hasi ahal izango da. Gero, lerro berdineko beste edozein enbor
ebaki ahal izango du. Hori bai, behin enbor bat ebakitzen hasiz gero, beste enbor batera pasatu
aurretik, derrigorrez bukatu beharko du. Era berean, bigarren lerroa pasa aurretik, lehenbiziko le-
rrokoak bukatu beharko ditu.

TXAPELKETAK ETA LEHIAKETAK

17.art.- Hiru aizkolari edo gehiagok parte hartzen duten lehiaketa eta txapelketetan, enborrak
bakoitzari ebaketa bakarra egiteko eran jarriko dira.

18.art.- Behin enborrak neurri zuzenetan doituz gero, perituek enborrak banatu eta enbor-multzoak
egingo dituzte, multzook beren artean ahalik eta antzekoen izan daitezen saiaturaz.

19.art.- Lehiaketa hasi baino 30 minutu lehenago, zozketa egingo da. Enbor-multzoei, zozketarako zenbakia jarriko zaie. Parte hartzaile bakoitzari, zozketan egokituko zaion zenbakiari dagokion enbor-multzoa egokituko zaio.

20.art.- Txapelketa eta lehiaketetan, nahitaezkoa izango da enborrak mozten hastea, ezarritako arauzko ordenaren arabera. Aizkolariek enborrak jarri diren ordenaren arabera ebaki beharko dituzte. Beraz, lehiaketetan, ezin izango dira hasi, kasu, hirugarren enborretik, eta ezin izango dira pasatu lehenbizikotik laugarrenera, eta abar... Beraz, lehiaketa eta txapelketetan aizkolariek enborrak orden berdina jarraituz ebakiko dituzte.

ERAKUSLE ETA LAGUNTZAILEAK

21.art.- Kontratuetakoa klausulek eta lehiaketetako araudiek hala adierazten badute, aizkolariek erakusle eta laguntzaileen laguntza izan dezakete. Ez ordea aizkolariko laguntzaile bat eta erakusle bat baino gehiago.

22.art.- Erakusleak aizkolariari honek aizkorakada non eman behar duen esan diezaioke. Horretarako erakusleek makila bat erabil dezakete, baina ez ezpalak kentzeko.

23.art.- Laguntzailearen lana aizkolariari aizkorak, eskuoihalak, edariak, eta abar... eskura jartzean datza.

24.art.- Ez laguntzaileak, ez erakusleak ezin diote aizkolariari enborretara igotzen lagundu, ezta enbor gainean mantentzen ere. Arau honi kasurik egiten ez badiote, epaileak kargu hartuko die, eta berriz ere ez badiote kasurik egiten, lehiaketatik kanpo geldi daitezke.

25.art.- Enbor gainera igotzeko, aizkolariek ezingo dute aulkirik erabili. Hala nahi badute, aizkora sar dezakete enborrean, edo enborrari koska bat kendu, errazago igo ahal izateko enbor gainera. Lanok behin lehiaketa hasita egin beharko dira.

26.art.- Jokaldiak iraun bitartean aizkora enborrean sartua gelditzen bazaio aizkolariari, ezin izango du beste inoren laguntza erabili aizkora askatzeko.

XEHETASUN TEKNIKOAK

27.art.- Enbor bat, erdibitu denean eta ohiko hotsa egin duenean, ebakia dagoela ulertzen dugu. Hala ere, enborrak langet gainean ezarriak daudenez, inoiz gertatzen da ezin jakitea enborra ebakia dagoen ala ez. Honegatik, epaileek, langetak banatu bezain laster ekingo diote enborrak berrikusteari, eta beste kolperen bat edo batzuk beharrezkoak direla irizten badiote, aizkolariari berriz ere enbor horretara jotzeko eskatuko diote, enborra guztiz ebakitzeko.

28.art.- Aizkolaria enborra alde batetik ebakitzen hasten denez, maiz, aizkorakadaren ondorioz, edo egur-izpien ondorioz, enborraren kanpoaldean ezpalak askatzen dira, eta hau aizkolariaren onerako da. Halako kasuetan, epaileek aizkoraren ahoaren beste aldearekin, ebakitzeko erabiltzen ari ez den aldean kolpe batzuk ematera behartuko du aizkolaria. Kolpe bakoitzean gainera, aizkora buruaren parera altxatu beharko du. Zenbat kolpe eman beharko dituen, epaileek erabakiko dute, askatu den ezpalaren tamainaren arabera.

Aizkolariak ezpala nahita askatu badu, zigorra gogorragoa izango da.

EUSKADIKO TXAPELKETARAKO MAILAKETA ETA ARAUDIA

Aizkolariek kategoria hauek dituzte: gizonak(3 kategorian), emakumeak eta gazteak.

1. Kategoria: gehienez ere 12 aizkolarik osatuko dute.

2. Kategoria: gehienez ere 14 aizkolarik osatuko dute.

3. Kategoria: gainontzeko aizkolariak.

Gazteak: 18 urte arteko aizkolariak, urteak urte horretan bete dituztenak.

Emakumeak: orain arte, kirolarien mugarik gabe

Gazteek ezin izango dute beste maila batean parte hartu. Hala ere, maila horretan bi urtez segidan txapeldun izan denak parte hartu ahal izango du 3. mailan, berak hala nahi baldin badu.

Lehenbiziko maila:

Finalean, kanporaketan sailkaturiko 6 onenek hartuko dute parte.

Lehenbiziko mailara igoko dira, bigarren mailako finaleko lehenbiziko eta bigarren sailkatuak.

Bigarren mailara jaitsiko dira, lehenbiziko mailako kanporaketan azken eta azkenurreko gelditu direnak.

Egin beharreko lana:

KANPORAKETA:

54"ko 2 enbor

60"ko 2 enbor

72"ko 2 enbor

Enborren ordena:

1° 54"

2° 60"

3° 72"

4° 72"

5° 60"

6° 54"

FINALA:

54"ko 4 enbor

60"ko 4 enbor

72"ko 4 enbor

Enborren ordena:

1° 54"

2° 54"

3° 60"

4° 60"

5° 72"

6° 72"

7° 72"

8° 72"

9° 60"

10° 60"

11° 54"

12° 54"

Bigarren maila:

Kanporaketetan sailkaturiko 6 onenek hartuko dute parte finalean.

Bigarren mailara, hirugarren mailako Finaleko lehenbiziko eta bigarren sailkatuak igoko dira.

Hirugarrenera, bigarren mailako kanporaketan azken eta azkenurreko sailkatuak jaitsiko dira.

Egin beharreko lana:

KANPORAKETA:

Enborren ordena:

54"ko 3 enbor	1° 54"	4° 60"
60"ko enbor 1	2° 54"	5° 54"
72"ko enbor 1	3° 72"	

FINALA:

Enborren ordena:

54"ko 2 enbor	1° 54"	4° 72"
60"ko 2 enbor	2° 60"	5° 60"
72"ko 2 enbor	3° 72"	6° 54"

Hirugarren maila:

Finalean, kanporaketan sailkatuetako 6 onenek hartuko dute parte.

Egin beharreko lana:

KANPORAKETA:

54"ko 4 enbor

FINALA:

Enborren ordena:

54"ko 3 enbor	1° 54"	4° 60"
60"ko 2 enbor	2° 54"	5° 54"
	3° 60"	

Izena ematen duen kirolari orok parte hartu beharko du. Arrazoi batengatik azkenean norbaitek ezin badu parte hartu, Euskadiko Federazioari jakinarazi eta idatziz arrazoia frogatu behar izango da 3 egun txapelketa hasi aurretik.

Egiazko arrazoirik ez ematea edo frogatu gabeko ez agertzeak, Federazio diziplina organora bid-
eratuko dira eta 100€ko zerga izango du.

Izen – ematea egiterakoan 50€-ko fidantza ordaindu beharko da. Fidantza hori bueltatzeko, den-
bora hoberenaren gei eta erdi azpitik egin beharko da.

EMAKUMEZKOAK:

7 kirolari baino gehiago inskribatzen badira, kanporaketa egingo da.

Egin beharreko lana:



KANPORAKETA:

Enborren ordena:

36"ko enbor 1	1° 36"
45"ko enbor 1	2° 54"
54"ko enbor 1	3° 45"

FINALA:

Enborren ordena:

36"ko enbor 2	1° 36"	4° 54"
45"ko enbor 2	2° 45"	5° 45"
54"ko enbor 2	3° 54"	6° 36"

GAZTEAK

Ez da kanporaketarik egingo.

Egin beharreko lana:

Enborren ordena:

45"ko 4 enbor	1° 45"	4° 54"
54"ko 2 enbor	2° 45"	5° 45"
	3° 54"	6° 45"

Enborrak pago-egurra izango dira.

2. eta 3. mailetan, kanporaketetarako hitzartuak dauden dietak jasotzeko, aizkolariak ezin izango du irabazleak erabili duen denbora baino %50 gehiago erabili lana bukatzeko.

Parte hartzea:

Aizkolari guztiek parte hartu beharko dute. Baten batek parte hartzen ez badu lesio edo gaixotasunagatik, ziurtagiri mediko bat aurkeztu beharko du, eta kategoria berean mantenduko da beste urtebetez, hala badagokio. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, kategoria berehala jaitsiko da. Hala badagokio, jaitsiera kanporaketa izango dute.

Aizkolari batek Euskadiko txapelketa baten parte ez hartzeko egiaztagiri gisa osasun-ziurtagiri bat aurkezten duenean, aizkolari horrek ezin izango du parte hartu beste froga baten (txapelketa, erakustaldi, apostu e.a....) 15 egunetan, delako txapelketa ospatzen den egunetik aurrera zenbatuz.

Kontrol gabeko frogen kasuan (adibidez: erakustaldiak, epaile eta akta gabekoak) Federazioak antolatzaileei aritutako kirolarien zerrenda (idatziz) eskatuko die eta kasua Disziplina Batzordera eramango da.

Mediku-ziurtagiriak txapelketa egiten den egunean bertan aurkeztu beharko dira. Kirolariak iraupen luzeko lesio larriren bat jasaten badu, dagokion ziurtagiria aurkeztuko du lehenbailehen.

Jaitsiera Kanporaketa:

Kanporaketa bateko azken sailkatua, edo, azkena eta azkenaurrekoa mailaz jaitsi behar dutenean, aizkolari batek edo batzuk, gaixotasun edo lesioen ondorioz osasun-ziurtagiria aurkeztu dutelako:

1º.- Baldintza hauetan mailaz jaitsi behar duen aizkolari batek, bere maila mantentzeko ahalegina egiteko eskubidea edukiko du, “Jaitsiera Kanporaketa” bat egitea eskatuz Euskadiko Federazioari.

Eskaera, txapelketa izan den egunetik zenbatu beharreko 15 egunetako epearen barruan aurkeztu beharko da.

2º.- Behin eskaera jasoz gero, “Jaitsiera Kanporaketa” parte hartzera behartuta egongo dira osasun-ziurtagiria aurkeztu duten aizkolariak eta/edo zigortuta egoteagatik delako Euskadiko txapelketan parte hartu ezin izan duten aizkolariak.

3º.- “Jaitsiera Kanporaketa” parte hartzera behartuta dagoen aizkolari batek uko egiten badio edo osasun-kontuak direla-eta parte hartzerik ez badu, automatikoki mailaz jaitsiko da.

4º.- “Jaitsiera Kanporaketa”, txapelketa izan den egunetik zenbatu beharreko 8 hilabeteko gehie-nezko epearen barruan egingo da. (Gaixorik edo minduta dauden aizkolariak sendatzeko 6 hilabe-tetako gehie-nezko epea, beste 2 hilabetetan “Jaitsiera Kanporaketa” egin beharko da).

5º.- Euskadiko txapelketa baten parte ez hartzeko osasun-ziurtagiria aurkeztu duen aizkola-riak, gaixo edo minduta jarraitzen duen artean, hilero bidali beharko du Euskadiko Federazioa osasun-ziurtagiri original berri bat.

Euskadiko txapelketa baten parte ez hartzeko osasun-ziurtagiria aurkeztu duen aizkolaria kirol-ba-jaz dagoela ulertzen da. Hori dela eta, gaixo edo minduta jarraitzen duen artean ezin izango du erakustaldietan parte hartu. Egin duela frogatzen bada, automatikoki mailaz jaitsiko da.

Euskadiko Federazioak aizkolari bat sendatu dela ulertuko du hileroko osasun-ziurtagiria jasotzen ez denean.

6º.- Euskadiko Federazioak jarriko du “Jaitsiera Kanporaketa” egiteko eguna.

7º.- Euskadiko Federazioak jarriko du “Jaitsiera Kanporaketa” ebakitzeko egurra.

8º.- “Jaitsiera Kanporaketa” parte hartzen duten aizkolariak ez dute ezer kobratuko.

PROBA OFIZIALETAN LEHIATZEARI UZTEA:

Aizkolari batek aizkora bere borondatez edo ezinbestean uztea erabakitzen badu, honela jokatu-ko da:

1. Aizkolariak idatziz edo beste bitarteko ofizial baten bidez jakinarazi beharko dio euskal fede-razioari federazioetan ofizialki lehiatzeari uzteko asmoa duela.
2. Aizkolari bat abandonatuz gero, bere kategorian hutsune bat sortuko da. Sortutako hutsa betetzeko, kategoria osatuko da beheagoko hurrengo kategoriako aizkolariekin, azken le-hiaketako sailkapen-ordenaren arabera.
3. Oro har, aizkora edozein kategoriatan sortutako hutsune bat 2. paragrafoa aplikatuko da.

